


Gasaren konkista

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko herritarren %93ren eskura dago jada



Euskal Energia Erakundearen (EEE) gas natural konpainien egungo egoera trantsiziozkoa da. Merkatuaren liberalizazioak, garapenean dauden energia egitasmo berriak, eta bereziki, EEE-ko egungo gas arduradunen pribatizazioak zuzenean eragingo du Euskadiko Gas Baltzua, BilboGas, DonostiGas, Gasnalsa eta gainerako konpainien geroan (Egun, Euskal Energia Erakundearen menpe daude).

Eusko Jaurlaritzak gas naturalaren aldeko apustua egin

2005. urterako gas naturalaren garraio sistema hobetzea da helburua

zuen orain 20 urte, eta ordutik hona gas naturala ahalik eta herritar gehienengana iristea izan du helburu. Hala, petrolioak ez den energia iturriak sustatzea ezinbestekoa dela jakinarazi dio Jaurlaritzak kazeta honi, Euskal Energia Erakundearen bitartez: «Gas naturala energia garbia da, eta gainerakoekin lehiatzeko modukoa. Euskal Autonomia Erkidegoa bezain lurralde txiki baterako, hain baliabide energetiko urriak izanik, guztiz beharrezkoa da». Egun, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko biztanleen %93ren eskura dago gas naturala.

Orain 20 urteko erronka hori eutsi nahi dio Jaurlaritzak, eta horrela, 2005. urterako gas naturalaren garraio sistema hobetzea du aurreikusita. Egun dagoen 2.000 kilometro luzeko sarea %40an luzatzea du xede

Aljeriak hornitzen du neurri handi batean Hego Euskal Herria gas eskaria

Jaurlaritzak, eta bost urteren buruan, gutxienez, 750 kilometro sare berria sortzea. Era berean, egungo sistemari horniketa aukera berriak gehitzea ere eginbeharrekoen artean du, horrela gas naturalaren hornikuntza bermatzeko. Horregatik guztiatik, Euskal Energia Erakundeak gas elkarleen helburua zerbitzua hobetzea da, eta horren lekuko da, esate baterako, Bilboko kaira gas naturala iristea ahalbidetuko duen Bizkaiko Badia izeneko egitasmoa.

Nondik datorkigu gas naturala?

Gas naturala energia berri, garbi eta ekonomikoa da. Lur azpian jarritako hodiak garraiatzen da. Energia honen erretserbak ikaragarriak dira, eta bere bolumena 142 milioi metro kubikokoa dela uste da. Hau da, munduko petrolio baliabideen %94 inguru ordezkatzeko du. Gainera, egunean-egunean gas na-

turalaren hodi berriak aurkitzen dira.

Aljeriak hornitzen du, neurri handi batean, Euskal Herria gas naturalez. Handik dator hemen kontsumitzen den gasaren %62; Norvegiatik dator %14 eta Libia eta beste lurralde batzuetatik beste %9. Egun, bost lekutatik sartzen da gas naturala Euskal

Herrira: bi gasbideetatik, eta hiru, Bartzelonako, Huelvako eta Cartagenako bergasifikazio planten bitartez. Azken hiru horiei Bilboko kaian erakitzen ari diren planta berri gehituko zaie aurki (Bizkaiko Badia Gas). Azken horretan, metanontzietan ekarritako likidotutako gasa bergasifikatuko dute.

GAS KONPAINIAK

	Sarearen luzera Km.	Salmentak Termiak x10 ⁶	Bezeroak
Euskadiko gasa	1.780	12.134	143.138
BilboGas	257	372	49.092
Gasnalsa	291	548	50.608
DonostiGas	259	453	52.654
Enagas	113	1.900	133
Guztira	2.700	13.507	295.622

Euskadiko Gas Baltzua 88 herritara iritsi da dagoeneko

2005. urterako, gas naturala 300.000 erabiltzaileengana iristea du helburu.

2000. urtean Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko sei udalerrri gehiagotan sartu zen Euskadiko Gas Baltzua (guztira 88 herritara iritsi da jada). Gaur artekoan 1.780 kilometro luzeko sarea osatu du, eta 200.000 bizilagun ingururi eskaintzen die zerbitzua.

Euskadiko Gas Baltzua 1982an sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailaren eta Euskal Energia Erakundearen ekimenez. Gas Naturala garraiatu eta banatzeko azpiegitura berriak sortuz, energia ustiapenen dibertsifikazioa lantzea du helburu nagusi Euskadiko Gas Baltzua Bere eginbehar handiena, baina, industri guneetan eduki du azken urtean. Horrela, energia kontsumo handiko enpresek gas naturala erabili ahal izateko instalazio guztia prest dute jada. Era berean, aipamen berezia merezi dute abian jarri berri dituzten bost kogenerazio instalazioek.

Horretarako, merkatu osora iritsiko zen estrategia jarri zuen abian; estrategia bidegarri eta errentagarria, Jaurlaritzak jakinarazi duenez. Lehendik zegoen sarea zortzi kilometro luzatu dute, eta guztira, 357 kilometro luzeko sarea du egun.



DonostiGas

2.000 bezero ko kopura gaintu du DonostiGas-ek. Gas naturalaren azpiegitura sarea 7.500 kanalizazio metrotan handitu dute, gaur arte. 2.143 bezero berri lortu ditu. Guztira, banakako kontratua duten 49.974 erabiltzaile ditu, eta erabiltzen zentralizatuko 2.680; osotara, beraz, 52.654 erabiltzaile.



GASNALSA
gas natural de alava s.a.

Gasnalsak 2.400 bezero berri eskuratu zituen iaz. Gasteiz eta inguruko herrietan gas naturala banatzeaz arduratzen da Gasnalsa. Iaz 548 milioi pezetako salmentak lortu zituen, %2,5ko irabaziak beraz. Egun, 50.605 erabiltzaile ditu, horietatik 2.400 iazko urtean lortuak.



BilboGas

BilboGas Bilboko etxebizitzetara %98ra iritsi da. Gas naturalaren zabaltzean laguntzea beste nahirik ez zuen izan iaz BilboGasek.